

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko azaroaren 13a

133. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F S A I L A :

#### Galderak:

- 11-24/PES-00352. Galdera, babesgabetasun-egoeran zegoen familia batek kalean lo egin beharra ekiditeko ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-24/PES-00353. Galdera, Foruzaingoko Informazio Dibisioaren txostenetan delituak polizia-kidegoaren arabera banatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-24/PES-00354. Galdera, funts publikoekin finantzaturiko ikastetxeetan eduki politikodun pankartak kentzeko protokoloari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-24/PES-00355. Galdera, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, betetze aldera Nafarroako Gobernuak egin dituen urratsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-24/PES-00356. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-24/PES-00357. Galdera, errentako etxebizitza publikoko parkeko etxebizitza bat emateko batez besteko itxarote-denborari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-24/PES-00358. Galdera, Nafarroan etxebizitza babestu bat emateko itxaron behar den batez besteko denborari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-24/PES-00359. Galdera, osasun arloko langileen lanbide-karreraren sistema ezartzen duen foru legearen zirriborroari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-24/PES-00360. Galdera, erosketa- eta lizitazio-teknikariaren lanposturako kontratazio mugagaberako tasa berariazko bat onesteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-24/PES-00361. Galdera, 2024ko maiatzaren 24an egin zen Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean Lucero jaunak jaulki zituen hitzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-24/PES-00362. Galdera, errentako etxebizitzak sustatzeko sozietate berri bat eratzeko prozesuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-24/PES-00363. Galdera, etxebizitzak zaharberritzeko bideratuta dauden dirulaguntzetako Europako funtsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- 11-24/PES-00364. Galdera, "Nafarroako gazteriari buruzko azterlan monografikoa" delakorako kontratuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-24/PES-00365. Galdera, "Estudios Melitón" enpresarekiko epaiaren betearazpenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-24/PES-00366. Galdera, Estatuak ordainduko dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle laguntzaile doktoreen 46 lanpostuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00367. Galdera, eskola-garraioaren zerbitzuaren eskariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-24/PES-00368. Galdera, Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egoteagatik larrialdi-egoratan gerta daitezkeen kalteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-24/PES-00369. Galdera, Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egotearen ondorioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-24/PES-00370. Galdera, Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egoteagatik ZIUko pazienteei begira gerta daitezkeen kalteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-24/PES-00371. Galdera, kontratatutako bide, ubide eta portuetako ingeniari kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/PES-00352. Galdera, babesgabetasun-egoeran zegoen familia batek kalean lo egin beharra ekiditeko ekintzei buruzkoa****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak babesgabetasun-egoeran zegoen familia batek kalean lo egin beharra ekiditeko ekintzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-24/PES-00352 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialesko, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Galdera horri dagokionez, departamentu honetan ez da jakin inolako jarduketarik egon denik familia horrekin lotuta, ez baitzen eta ez baita jakinarazi adingabeen babesgabetasuneko nahiz arriskuko egoerarik; beraz, ez da familiaren egoeraren baloraziorik egin.

Bestalde, adierazi behar da ezen, gizarte bazterketako arriskuan nahiz egoeran daudenen berehalako arreta eta harrera toki erakundeen ardura direla, Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 26. artikulua xedatzen duenez; horrenbestez, kasu zehatz horrekin lotuta eskuratu nahi den beste edozein informazio osagarri Iruñeko Udalari eskatu beharko zaio, hura baita zerbitzuaren titularra.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Eskubide Sozialesko, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## 11-24/PES-00353. Galdera, Foruzaingoko Informazio Dibisioaren txostenetan delituak polizia-kidegoaren arabera banatzeari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Foruzaingoko Informazio Dibisioaren txostenetan delituak polizia-kidegoaren arabera banatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00353). Hona Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

1. Zergatik kendu du Informazio Dibisioak delitu-egitateek haien berri izan zuen polizia-kidegoaren arabera izan zuten banaketari buruzko informazioa jasotzen zuen atala Nafarroako delinkuentziaren ebaluazio estrategikoari buruz 2021az geroztik eman diren txostenetan?

Ikerketa Kriminalaren Arloko buruak, 544 zenbaki profesionaleko komisario nagusiak, hauxe esan du:

Informazio Dibisioak delitu-egitateek haien berri izan zuen polizia kidegoaren arabera izan zuten banaketari buruzko informazioa jasotzen zuen atala kendu du Nafarroako delinkuentziaren ebaluazio estrategikoari buruzko txostenetan informazio horrek ez duelako datu esanguratsurik ematen Nafarroako askotariko polizia zonetan urtean zehar delitu esparruen arabera egoten diren delituen joeren hazkundearen nahiz murrizketaren jarraipena egiteko.

Foruzaingoa Azterketa eta Inteligentzia Brigadak sistematikoki ematen dituen txostenetan oinarritzeko premisa da poliziaren jarduera delituen prebentziorantz eta argibiderantz bideratzea.

Erabaki hori eta delinkuentziaren jarraipena egiteko txosten hau eta beste batzuk egiten direnetik hartu diren beste batzuk sinatzen dituenak hartu ditu.

2. Barneko Departamentuari ez al zaio garrantzitsu iruditzen informazio hori argitaratzea, non azaltzen baita Nafarroan jarduten duen polizia-kidego bakoitzak PISen erregistratutako delitu-egitateen zer ehuneko erregistratu duen?

Ikerketa Kriminalaren Arloko buruak, 544 zenbaki profesionaleko komisario nagusiak, hauxe esan du:

Jotzen du egitateak haien berri izan zuen polizia kidegoaren arabera banatzeak eta jakiten diren delitu-egitateetatik ondorioztatzen ahal diren beste aldagai batzuek ez dutela garrantzirik poliziaren jarduera delituaren prebentziorantz eta argibiderantz bideratzeko orduan.


Halaber, bereziki interesgarria da jakitea Foruzaingoa ez duela inola ere asmorik izan txosten horietan jasota dagoen informazioa komunikabideen bidez zabaltzeko, komunikabide jakin batek eskatu duenean izan ezik, zenbaitetan gertatu den bezala.

Kontuan hartu behar da txosten horrek jasotzen duen informazioaren edukia, funtsean, antzekoa dela Segurtasunaren Estatuko Idazkaritzak noizean behin Kriminalitatearen Estatistika Sistemaren bidez ematen duenaren aldean. Txosten hori Ministerioaren webgunearen bidez argitaratzen da eta sistema horretan jasotako datuak Estatistikaren Europako Bulegoak (Eurostat) bate-ratutako estatistika erduetan oinarritutako prozedura automatizatuen bidez lortzen dira.


Foruzaingoa txostenetan jasotzen diren datuak, nahiz eta asmoa izan hilabeteen eta polizia zonen arabera informazioa emateko, ez diote jarraitzen Kriminalitatearen Estatistika Sistemak erabiltzen duen metodologia berari; izan ere, funtsean, helburua da Foruzaingoa jarduera delituaren prebentziorantz eta argibiderantz bideratzea.

3. Nolanahi ere, Foruzaingoaren Informazio Dibisioaren esku dagoen informazioaren arabera, zer banaketa izan dute 2022ko ekitaldian ezagutu-tako delitu-egitateek Nafarroan jarduten duten polizia-kidegoka?

Kontsultatu da Foruzaingoak 2022. urteari lotuta duen informazioa eta hauxe da erantzuna:



4. Eta zein izan da 2023ko banaketa?



5. Foruzaingoaren Informazio Dibisioak ba al du asmorik 2024ko ekitaldiko Nafarroako delinkuentziaren ebaluazio estrategikoaren txostenean polizia-kidegoen araberako banaketari buruzko informazioa sartzeko berriz?

Ikerketa Kriminalaren Arloko buruak, 544 zenbaki profesionaleko komisario nagusiak, hauxe esan du:

Ez, 2024 ekitaldirako Nafarroako delinkuentziaren ebaluazio estrategikoaren txostenean ez da jaso banaketa polizia kidegoen arabera.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.<sup>a</sup> Amparo López Antelo

## **11-24/PES-00354. Galdera, funts publikoekin finantzaturiko ikastetxeetan eduki politikodun pankartak kentzeko protokoloari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak funts publikoekin finantzaturiko ikastetxeetan eduki politikodun pankartak kentzeko protokoloari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularrak aurkeztutako 11-24/11-24-PES-00354 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentuak ez du protokolo espezifikorik funts publikoekin finantzaturiko ikastetxeetan eduki politikoa duten pankartak kentzeko.

Iruñean, 2024ko irailaren 20an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## **11-24/PES-00355. Galdera, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, betetze aldera Nafarroako Gobernuak egin dituen urratsei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, betetze aldera Nafarroako Gobernuak egin dituen urratsei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak PES-00355 galdera egin du idatziz erantzun dakion. Hona hemen horri buruz ematen den informazioa:

Lehenik eta behin adierazi behar da, azken galderan zuzen azpimarratu duzunez, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta

gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen eta Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko maiatzaren 17ko 7/2018 Foru legearen intereseko taldeen erregulazioak zenbait zalantza sortzen dituela gai hori erregulatu behar duenaren inguruan; zalantza horiek bikoiztasuna eragiten ahal dute eta beharrezkoa da koordinatzea edota legea aldatzea argitzeko zinekin hartu behar duen bere gain zeregin hori.

Alde batetik, foru legearen IV. tituluak interes taldeak definitzen ditu, eta ezartzen du horietarako erregistro publiko bat sortuko dela, izena eman beharreko pertsona eta erakundeen sailkapena eta eskatutako informazioa arautuko direla eta jardunbide kode bat ezarriko dela. Hori ez bete zezaren ondorioak zehapen araubidean daude tipifikatuta.

Bestalde, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzeko maiatzaren 17ko 7/2018 Foru Legearen lehenbiziko xedapen iragankorrak ezartzen duenez, lobbyen jarduera arautzeko eta haien erregistroa eta jokabide kodea sortzeko,

aintzat hartuko da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legearen IV. Tituluan (Interes taldeak) ezarritakoa, eta araudi hori izanen da aplikatuko dena lobbyen eta lobbyzaleen jardunari buruzko araudi bat onetsi bitartean.

Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiaren Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuak alde aurreko kontsulta bat jarri zuen martxan Nafarroako Foru Komunitatearen interes taldeen erregistro publikoa arautzeko foru dekretu berriaren eraginak jasaten ahal zituzten erakunde esanguratsuen eta herritarren iritziak biltzeko.

Kontsulta egin ostean, Nafarroako Foru Komunitateko Jardunbide Egokien Aldeko eta Ustelkeriaren Kontrako Bulegoa sortzeko maiatzaren 17ko 7/2018 Foru Legearekin lerrokatzeko eta koordinatzeko zain gaude. Lege hori 2023an ezarri da azkenean.

Efikaziaren mesedetan, egokitzen jo da interes taldeen erregistro bakar bat garatzea modu koordinatuan, Foru Legearen 47. artikuluan xedatutakoa betetze aldera. Erregistroa zabalduko zaie 5.000 biztanle baino gehiago dituzten eta nahi

duen herrietako toki erakundeei, horretarako hitzarmena formalizatuta.

Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuak informazio hori guztia ezagutzera eman zuen Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen ebaluazioa argitaratu zuten Nafarroako Gobernuaren Gobernu Irekiaren Atarian, eta Nafarroako Parlamentuari ere helarazi zion.

Jadanik aurreratu denez, beste aukera bat da Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen aldaketa erabiltzea bikoiztasun hori zuzentzeko eta argi eta garbi ezartzeko Nafarroako Gobernuak zer rol izanen duen esparru horretan eta zein, ordea, Jardunbide Egokien eta Ustelkeriaren aurkako Bulegoak. Nafarroako Gobernuak jadanik ari da aldaketa hori izapidetzen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

## 11-24/PES-00356. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren egoerari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren eta Nafarroako Gazteriaren Kontseiluaren jarduketei buruz (11-24/PES-00356). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Etxebizitzako,

Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Lehenik eta behin, jasota utzi behar da presidentek ez duela oraindik dimititu edo, gutxienez ere, Nafarroako Gazteriaren Institutuak ez du horren konfirmazio ofizialik jaso. Presidenteak jardunetan jarraitzen du eta, antza denez, asanbladak duen hurrengo saiora arte ez da irmoa izanen ezagutzera emandako dimisioa.

Beraz, azken hilabeteetan zehar harreman berbera mantendu da, azken urteotan sendoagoa izan dena erakundeak aurrean dituen inguruabarrengatik. Harremanetan jarraitu da nola maila teknikoan hala zuzendaritzako alorrean, Nafarroako Gobernuak eskura dituen ekintza guztiakin laguntzen Nafarroako Gazteriaren Kontseiluak egokiro funtzionatzeko.

Jarraian zerrendatzen dira 2024ko ekainetik izan diren komunikazio guztiak:

Gogorazpena hitzarmen izenduna formalizatzeko falta den dokumentazioari buruz	Mezu elektronikoa	2024/06/12	Eskaera ez da artatu orain arte
Gonbidapena Gazteriaren Erakundearteko Kontseiluko ordezkaria izendatzeko	Mezu elektronikoa	2024/08/28	Eskaera ez da artatu orain arte
Gonbidapena Gazteriaren Sarien Batzordean parte hartzeko	Telefono deia	2024/09/06	Eskaera artatu da
Gazteriaren Sarien Aholkularitza Batzordean parte hartzeko deialdia	Mezu elektronikoa	2024/09/11	Eskaera artatu da
Gazteriaren Sarien Aholkularitza Batzordea	Aurrez aurrekoa	2024/09/18	Eskaera artatu da

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García



## 11-24/PES-00357. Galdera, errentako etxebizitza publikoko parkeko etxebizitza bat emateko batez besteko itxarote-denborari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak errentako etxebizitza publikoko parkeko etxebizitza bat emateko batez besteko itxarote-denborari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00357). Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Ez dago berez batez besteko itxaronaldirik etxebizitza babestu berri bat errentamenduan adjudikatzeke, hautapeneko zenbait faktoreren arabera adjudikatzen baita, hala nola logela kopurua eta udalerraren arabera, bai eta errenta tartea-

ren, kasu bakoitzean dagoen erreserbaren eta baremoan lortutako puntuazioaren arabera ere.

Ez dago lehentasunik nahiz puntuazio hoberik Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Zentsuan denbora gehiagoz izen emanda egoteagatik. Hartara:

– Errentamenduko etxebizitza babestua sustatzen ez den udalerrri bat aukeratuz gero, itxaronaldia amaigabea da.

– Iruñetik eta Iruñeritik kanpoko sustapen batzuetarako batez besteko itxaronaldia urtebetetik edota sei hilabetetik beherakoa da.

– Iruñean eta Iruñerrian itxaronaldia oso luzea izaten ahal da; baliteke pertsona bat inoiz ez izatea adjudikaziodun Zentsuan izena ematen dutenek hura baino puntuazio handiagoa badute eta bat badatoz eskarrietan (logelak, udalerrria) eta ezaugarrietan (errenta tartea, erreserba).

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

## 11-24/PES-00358. Galdera, Nafarroan etxebizitza babestu bat emateko itxaron behar den batez besteko denborari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak Nafarroan etxebizitza babestu bat emateko itxaron behar den batez besteko denborari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00358). Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Ez dago berez batez besteko itxaronaldirik etxebizitza babestu berri bat erosteko; izan ere,

kontuan hartu behar dira eskatutako etxebizitza mota (babes ofizialekoa/prezio tasatukoa), logela kopurua, udalerrria, errenta tartea, kasu bakoitzean dagoen erreserba eta baremoan lortutako puntuazioa. – Hori horrela, etxebizitza babestua sustatzen ez den udalerrri bat aukeratuz gero, itxaronaldia amaigabea da. Beste kasu batzuetan berehala eskuratzen ahal da etxebizitza. Zenbait adibide aipatzearren:

- Hiru logelako prezio tasatuko etxebizitza hutsak geratu dira (adjudikatu barik) 2024an Barañainen eta Berriobeitin.

- Hiru logelako babes ofizialeko etxebizitza hutsak geratu dira (adjudikatu barik) Berriobeitin (2024) eta Zizur Nagusian (2023).

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

## 11-24/PES-00359. Galdera, osasun arloko langileen lanbide-karreraren sistema ezartzen duen foru legearen zirriborroari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak sasun arloko langileen lanbide-karreraren sistema ezartzen duen foru legearen zirriborroari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak 11-24/PES-00359 informazio eskaera egin du honako hau jakiteko: “Nola uzta-tuko da Osasun Departamentuari eta bere erakunde autonomoei atxikitako osasun arloko langileen karrera profesionaleko sistema ezartzen duen foru legearen zirriborroa, fakultatibo espezialistak, beste osasun fakultatibo eta diplomatu batzuk izan ezik, etorkizuneko karrera profesionalarekin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta haren erakunde autonomoetako langile guztientzat?”. Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Hizpide duzun foru legearen zirriborroak, Nafarroako Gobernuak bere horretan onetsi zuenetik fakultatibo espezialistak, beste osasun fakultatibo eta diplomatu batzuk izan ezik Osasun Departamentuari eta bere erakunde autonomoei atxikitako osasun arloko langileen karrera profesionaleko sistema ezartzen duen foru-lege proiektua denak, alegia, jasotzen du erantzuna; izan ere, bertan jasota dago laugarren xedapen iragankorra, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiarekin itundua, eta hauxe ezartzen du:

“Laugarren xedapen iragankorra. Etorkizunean lanbide karrera zabaltzea Foru Komunitateko Administrazioari langile guztiei.

Foru lege honetan C eta D taldeetako osasun arloko langileen lanbide karrerari buruz ezarritakoa langile horiei aplikatuko zaie, ezertan galarazi gabe etorkizunean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari langile guztiak sartzeko jardun-ebaluazioari eredu homogeen batean, zeinak,

zerbitzu publikoen ematearen hobekuntza aintzat hartuta, langile publiko guztientzat ezar daitezkeen lanbide-karrerako sistemetak progresioa zehaztuko baitu”.

Xedapen horretan jasota dagoenez, enplegatu publiko guztientzako lanbide karrerako sistema bat dagoenean, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren langile guztien jarduna ebaluatzeko eredu bat, eredu homogeenoa izanen da eta foru-lege proiektu horretan xede den lanbide karrerako langile onuradunei era aplikatuko zaie.

Lehenik eta behin hauxe argitu behar da: fakultatibo espezialistak, beste osasun fakultatibo eta diplomatu batzuk izan ezik Osasun Departamentuari eta bere erakunde autonomoei atxikitako osasun arloko langileen karrera profesionaleko sistema ezartzen duen foru-lege proiektuak jorratzen duen karrerako sistemak badu jardunaren ebaluazioa, beste kolektibo sanitarioetako dauden sistemek bezala.

Hartara:

– Bat etorri 3. artikularekin, langileak motibatze eta osasun zerbitzuen kalitatea hobetzeko tresna bat da lanbide karrera.

– 6. artikularen arabera, mailaz igotzeko, eskatutako guztizko puntuazioaren ehuneko 50 jardura profesionalaren eta garapen eta hobekuntza profesionalaren baldintzak gainditzeagatik da, foru legearen 7.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

– Garapen eta hobekuntza profesionala baloratze bakoari buruzko 8. artikularekin bat, baloratu bereiz baloratuko ditu jardura eta jardun profesionala, garapen teknikoa eta antolaketa-ko eta prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa.

Ebaluazioa gainditzeko eta, estamentu bakoitzaren barruan, lanbide karrerako maila jakin batera igotzeko, erregelamendu bidez ezarriko da lortu beharreko gutxiengo puntuazioa. Puntuazio hori honako multzo hauetan guztietan edo batzuetan lortu behar da, baloratu beharreko estamentuaren eta espezialitatearen arabera:

Bloke horietatik, “Jardura eta jardun profesionala” atalean baloratuko dira profesionalaren jarduna, haren inplikazioa, unitatearen helburuei eta egindako lanaren kalitateari egindako ekarpena eta izandako konpromisoa, pazienteen gogobete-

tasun maila, eta esperientzia, ezagutza, trebetasunak, jarrera nahiz ahalegin pertsonala, zeinek lanbide-ondarea osatzen baitute eta lan profesionala egiteko modua tankeratzen baitute.

Horretarako, exijitzen da ezen, ondorio horietarako, langileek eskubidea dutela erakundearen eta beren unitatearen helburuak ezagutzeko eta azken horien ezarpenean parte hartzeko.

Beste bloke batean daude “Garapen teknikoko eta antolamenduzko jarduerak”, non baloratzen den profesionalak parte hartzea jardueretan, proiektuetan, lantaldeetan, kalitate-taldeetan, burutzetan edo koordinazioetan, bai eta osasun-laguntza hobetzen eta Osasun Departamentuaren eta haren erakunde autonomoen helburuak betetzen modu eraginkorrean laguntzen duen beste edozein jardueratan ere.

Horrenbestez, galdera horretan aipatzen den foru-lege proiektuak ezartzen duen karrerako sisteman jardunaren ebaluazioa bada jadanik funtsezko parte bat eta, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko langile guztiak ebaluatzeko sistema homogeen bat ezartzen denean, sistema hori izanen zaie aplikatzekoa proiektuak xedetzat dituen osasuneko langileei, aipatutako laugarren xedapen iragankorrak jasotzen duen bezala.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-24/PES-00360. Galdera, erosketa- eta lizitazio-teknikariaren lanposturako kontratazio mugagaberako tasa berariazko bat onesteari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak erosketa- eta lizitazio-teknikariaren lanposturako kontratazio mugagaberako tasa berariazko bat onesteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du –2024ko irailaren 4ko 202405647 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– NEKPk erosketako eta lizitazio-teknikariaren lanposturako langileen kontratazio mugagaberako tasa espezifikoki lotutako hainbat alderdiri buruz (11-24/PES-360). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Zergatik eskatu dio NEKPk baimena Nafarroako Gobernuari erosketa- eta lizitazio-teknikari lan-

posturako langileen kontratazio mugagaberako tasa espezifikoa bat onartzeko?

Nafarroako Gobernuari kontratazio mugagaberako tasa espezifikoa onartzeko baimena eskatu zaio, Estatuaren 2023rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen babesean (aurrekontuak 2024ko urtarrilaren 1etik luzatu dira), Enplegu publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurrien abenduaren 28ko 20/2021 Legean jasotako helburua betetzeko

Erosketa Departamentua pertsona bakar batek osatu du 2010ean sortu zenetik.

2021etik, honako hauek gertatu dira:

a. NEKPren Erosketa Departamentuaren jardura hazi da kontratazio zentralizatu berriak egon direlako enpresa taldea osatzen duten sozietate guztietarako.

b. Arrazionalizazio sistemak sustatu dira (esparru-akordioak eta sistema dinamikoak), eta urtean zehar kontratazio deribatuak egitea eskatzen dute.

c. NEKPn integratutako sozietateei kontratazio publikoaren alorrean asistentzia eta laguntza espezializatua emateko premiak hazi dira.

d. Sortu berri diren sozietate publikoek kontratazio publikoaren alorrean dituzten premiak.

e. Arreta eta aholkularitza NEKPn integratutako sozietate publikoetan ezarritako erosketa modulua kudeatzeko.

f. Aholkularitza NEKPn integratutako sozietate publikoetan erosketen modulua ezartzeko.

Horrek guztiak berekin ekarri zuen 2022an erosketako teknikariaren lanpostua sortzea, eta praktiketako langile bat jarri zen bertan, zeinarekin prestakuntzako ahalegin handia egin den.

NEKPren Administrazio Kontseiluak 2024ko martxoaren 25ean izandako saioan postu hori egiturazko gisa definitu zuen eta erabaki zuen abenduaren 23ko 31/2022 Legean jasotzen den tasa espezifikoa eskatuko ziola Nafarroako Gobernuari.

Zergatik lanpostu zehatz horretarako eta ez beste baterako?

NEKPren Administrazio Kontseiluak 2024ko martxoaren 25ean izandako saioan postu hori egiturazko gisa definitu zuen eta erabaki zuen abenduaren 23ko 31/2022 Legean jasotzen den tasa espezifikoa eskatuko ziola Nafarroako Gobernuari.

NEKPren Administrazio Kontseiluak ez du beste posturik egiturazko gisa definitu 31/2022 Legean araututako tasa espezifikoa eskatzen duenik.

Egin al da baimenak aipatzen duen kontratazio mugagabea?

Bai, Nafarroako Gobernuaren 2024ko ekainaren 19ko akordioa jakinarazi ostean.

Egin bada, lanpostu hori aldi baterako betetzen ari zen pertsonak bete al du edo beste batek?

Bai, lanpostu hori aldi baterako kontratuarekin okupatzen zuenak bete du.

Zein da NEKPren behin-behinekotasun tasa, galderan aipatzen den kontratazio mugagabearen aurretik?

NEKPren behin-behinekotasun tasa galderan aipatzen den kontratazio mugagabearen aurretik % 24koa zen.

Kontratazio mugagabe hori egin bada, kontratazio horren ondoren NEKPren behin-behinekotasun tasa ere eskatzen da.

Erosketako teknikariaren postuan kontratazio mugagabea egin ondoren behin-behinekotasun tasa % 18koa izan da.

Jasota utziko da emandako informazioaren konfidentzialtasuna, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 14. artikuluen babesean parlamentariak dokumentazioa eskatzeko duen eskubidearen markoan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betetzeko.

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

## **11-24/PES-00361. Galdera, 2024ko maiatzaren 24an egin zen Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean Lucero jaunak jaulki zituen hitzei buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak 2024ko maiatzaren 24an egin zen Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean Lucero jaunak jaulki zituen hitzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak informazioa eskatu du Lucero jaunak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean 2024ko maiatzaren 24an esandakoari buruz (11-24/PES00361). Hona hemen Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Idatziz erantzuteko zure galderari dagokionez, joan den maiatzaren 24an Legebiltzarrean egindako agerraldian helarazi nizun informazioa –zure aurreko galdera parlamentarioari helarazitako– lotzen natzaio.

Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilari naizen aldetik, ez dut baloraziorik egiten talde parlamentarioek esaten dutenaren inguruan, baina, maiatzaren 24ko agerraldian esan nuenez, eskerrak eman nahi dizkiot Bustince jaunari egin duen lanagatik eta Nafarroak adimen artifizialeko zentro hori izateko egin duen ahaleginagatik.

Bustince jauna adimen artifizialean ospe handia duen pertsona da, eta, Nafarroako unibertsitateetako beste ikerketa-talde batzuekin eta NAIR Center-ekin lankidetzan jarraituko du alde edo moldez.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

## 11-24/PES-00362. Galdera, errentako etxebizitzak sustatzeko sozietate berri bat eratzeko prozesuari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak errentako etxebizitzak sustatzeko sozietate berri bat eratzeko prozesuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak informazio eskaera bat egin du (11-24/PES-00362). Hona hemen eskatu duena eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

- Zein egoeratan dago sozietate publiko-pribatu hori (kapital mistokoa, alokairu eskuragarriko

etxebizitzak sustatzeko) sortzeko prozesua eta zer aurreikuspen ditu Nafarroako Gobernuak horri buruz, denborari eta prozedurari dagokienez?

Nasuvinsa eta NEKP batera ari dira lanean bazkide pribatu bat hautatzearekin lotutako askotariko alderdiak aztertu eta zehazteko, alokairuko etxebizitza babestua eraikiko eta kudeatuko duen enpresa misto bat sortzeko. Prozesu horren barnean daude sektore pribatuarekin aldez aurretik informazioa trukatzeko ekintzak, bai eskualde mailan bai maila nazionalean. Ildo horretatik, jakinarazten da gaur egun aurretiazko plangintzako prozesu batean gaudela, eta aukera emanen duela epe laburrean lortu nahi den helburua garatzen eta betetzen dela bermatzeko.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García



## 11-24/PES-00363. Galdera, etxebizitzak zaharberritzeko bideratuta dauden dirulaguntzetako Europako funtsei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak etxebizitzak zaharberritzeko bideratuta dauden dirulaguntzetako Europako funtsei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-24/PES-00363 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

1. 2023ko ekitaldian eta 2024ko lehen bost hila-beteetan etxebizitzak zaharberritzeko dirulaguntzetara bideratutako kopuruetatik (goian azaldutako zenbatekoak), zenbat diru dator Europako funtsetatik?

Egindako galderan adierazitako zenbatekoak (43.842.210 eta 28.357.527,53 euro, hurrenez hurren) bat datoz Nafarroako Gobernuaren funtsen kargura emandako dirulaguntzekin, zaharberritzeari buruzko araudi indarduna aplikatuta (Etxebizitzaren Arloko Jarduketa Babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretua); beraz, ez dute zerikusirik Europako funtsetatik ateratako diruzko finantzaketarekin.

2. Europako funtsetatik zenbat diru jasotzea aurreikusten da 2024an eta 2025 eta 2026an?

2024an 5.934.000 euro jaso dira guztira bizitegia zaharberritzeko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren Europako funtsen kontzeptuan. Printzipioz, ez da espero 2024-2026 aldian funts gehiagorik jasotzea. Hala ere, baliteke egikaritu ez diren edota beste autonomia erkidego batzuek oraindik dituzten soberako funtsak banatzea.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García



## **11-24/PES-00364. Galdera, "Nafarroako gazteriari buruzko azterlan monografikoa" delakorako kontratuari buruzkoa**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak "Nafarroako gazteriari buruzko azterlan monografikoa" delakorako kontratuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako gazteen azterlan demografikoa egiteko kontratuari buruz (11-24/PES-00364). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 11ko 2/2018 Foru Legearen 90. artikulua ezartzen duenez, kontratazio organoek alde aurreko informa-

ziorako iragarki bat argitaratuko dute, lizitatzeko asmoa duten obra-, hornidura-, zerbitzu-, herrilanen emakidarako edo zerbitzu-emakidarako kontratuak ezagutzera ematearren.

Informazio hori ez da loteslea, eta berorren edozein baldintza aldatzen ahal da lizitazio prozedura hasi baino lehen.

Hizpide den kasuan, nahiz eta aditzera eman azterlanaren lizitazioa prozedura ireki bidez izapidetuko dela, egia esan, kontratuaren balio zenbatesia aintzat hartuta, hasiera batean aurreikusitakoa baino txikiagoa denez, erabaki zen prozedura hori bertan behera uztea eta, ordez, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. artikuluekin bat etorritz, munta txikiagoko kontratueterako araubide bereziaren bidez adjudikatzea.

Beraz, ez da beste lizitaziorik argitaratuko ekintza horrekin lotuta.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

## 11-24/PES-00365. Galdera, "Estudios Melitón" enpresarekiko epaiaren betearazpenari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak "Estudios Melitón" enpresarekiko epaiaren betearazpenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 6ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (11-24/PES-00365). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

1. Estudios Melitónen kontra izaten ari den prozedura judizialari dagokionez, epaia irmo deklaratu ostean eta hura betearazten hasteko legez ezarritako epea igaro ondoren, 2024ko irailaren 9an, idazki bat aurkeztu zen auzitegiak epaia betearazteko prozedura has dezan Estudios Melitónek jarri zioten kondenaren arabera ordaindu behar dituen zenbatekoak kobratzeko.

Egin diren ikerketen arabera, antza denez, entitateak ez du inolako ondasunik, eta, beraz, zenbatekorik kobratzeko itxaropenak txikiak dira, edota hutsalak. Hala eta guztiz ere hasi da betearazteko prozedura, egoten ahal den aukera oro agortzeko.

2. Ez dago jasota.

3. Jakina denez eta adierazi denez, 2023ko otsailaren 28an demanda judiziala jarri zen eta 2024ko urtarrilaren 25eko epaiaren bidez amaitu zen. Epai hori betearazteko eskatzen da orain.

4. Nasuvinsak komertzializazio zorroko instalazioak erabilgarri ditu beste erabilera eta enpresa jarduera batzuetarako, baina oraindik ez da operazio bat ere zehaztu.

Halaber, lanean ari da platoa jarduera ekonomikorako erabilera anitzeko zentro batean bihurtzeko posibilitatea baloratzeko, aukera eman dezan zenbait pabilioi txikiago eta zona administratibo bat izateko, komertzializazioa errazteko.

5. Ez dut uste kudeatzaile publikoek zuhurtzia faltarik izan dutenik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

## 11-24/PES-00366. Galdera, Estatuak ordainduko dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle laguntzaile doktoreen 46 lanpostuei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Estatuak ordainduko dituen Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle laguntzaile doktoreen 46 lanpostuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 13ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak informazioa eskatu du Estatuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle laguntzaile doktoreen 46 lanpostu finantzatu

ko lanpostu finantzatu baititu (11-24/PES00366). Hona hemen Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Espainiako Gobernuak finantzatu dituzten gain Nafarroak irakasle laguntzaile doktoreen 30 plaza osagarri jarriko ditu.

Zenbateko ekonomikoa Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin 2025-2028 aldirako egiten den hurrengo hitzarmenean jasoko da. Negoziazio fasean dago hori.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 27an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

## 11-24/PES-00367. Galdera, eskola-garraioaren zerbitzuaren eskariari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak eskola-garraioaren zerbitzuaren eskariari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 13ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, 11-24-PES-00367 galdera idatzia egin du. Hona hemen Hezkuntzako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Galderak hizpide duen ikaslea Iruñeko Hijas de Jesús itunpeko ikastetxeko Curriculum Berezi-

ko Unitatean (CBU) matrikulatuta dago 2021/2022 ikasturteaz geroztik.

Familiak mezu elektronikoko bat idatzi zion Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuari abuztuaren 19an, eta egun horretan bertan erantzun zioten:

*Arratsalde on:*

*Eskerrik asko idazteagatik. Araudi horri dagozkionez, zehaztu behar dugu ez dela Curriculum Berezi-ko Unitatearen garraioa estaltzen, ez baitugu ikaslerik bideratzen, eta familiek nahi duten ikastetxean egiten dute behin-behineko izen-ematea. 3.2 artikulua.*

*Era berean, eskola-garraioaren onuradun izan diren hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak, baldin eta 2.1.a) artikuluan zehaztutako ikasketak egiten ari badira eta Hezkuntza Departamentuak funts publikoekin sostengatutako unitate espezifikoetara edo hezkuntza berezi-ko ikastetxetara bideratzen baditu, bai eta,*

*mugitzeko desgaitasuna, desgaitasun psikikoa edo zentzumen desgaitasuna dela eta, eskualdeko hiri garraio publikoa erabili ezin duten ikasleak ere, Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuak aldeko txostena eman ondoren.*

*Nolanahi era Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren beka nahiz Nafarroako Gobernuarena eska dezakezue, zerbitzu horren ordainketa eskatzeko.*

*Eskerrik asko alde aurretik zuen arretagatik.*

*Ongi izan*

Egun horretan bertan, abuztuaren 19an, ikaslearen familiak erantzun egin zion bidalitako erantzunari. Horren bidez adierazi zuten artikulu horrek ikasle guztiak barne hartzen dituela eta, lana eta familia bateratzeko arrazoiak direla eta, ezin dutela ikaslearen lekualdaketa beren gain hartu, halaber, adierazi dute beka ez dituztela arrazoi ekonomikoengatik eskatu.

Zerbitzutik abuztuaren 29an erantzun zieten, honelaxe:

*Arratsalde on berriro:*

*Ez, artikulu horrek ez die ikasle guztiei eragiten, soilik ikastetxera bideratuak izan direnei; horregatik egiten da beken eta dirulaguntzen deialdia.*

*Ongi izan*

Abuztuaren 29an, Arartekoaren Q24/873 eskaerari erantzun zitzaion, zeinaren bidez familiak semearentzako garraioa eskatu baitzuen, eta honako erantzun hau eman zen:

*Nafarroako Arartekoa*

*Iruñean, 2024ko abuztuaren 29an*

*Q24/873 espedientea*

*Hezkuntzako kontseilariak erantzun egin dio Nafarroako Arartekoak bidalitako idazkiari, Elena Arenaza Borja andreak aurkeztutako kexari buruzkoa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentuan kexa bat aurkeztu baitu, Hijas de Jesús itunpeko ikastetxeko Curriculum Bereziko Unitatean matrikulatuta dagoen semearentzako garraioa eskatzeko.*

**JAKINARAZTEN DU:**

*Familia guztiek eskubidea dute seme-alabak matrikulatuko dituzten ikastetxea askatasunez aukeratzeko, eta, gure ustez, familiak eskubide hori baliatu du.*

*Une honetan, 44 Curriculum Bereziko Unitate daude bigarren hezkuntzako ikastetxe publikoetan, eta 12 Curriculum Bereziko Unitate itunpeko*

*ikastetxeetan; beraz, gure ikasleei erantzuteko nahikoa plaza eskaintzen dira.*

*Egoitzaren arabera erreferentziako ikastetxe publikoa Iruñeko Plaza de la Cruz BHI da. Bertan, Curriculum Bereziko Unitatea dago, eta, ondo dioen bezala, garraioa ere badago, araudiaren arabera egokitzen baitzaio: 35/2022 Foru Agindua, maiatzaren 11koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean eskola-garraioaren antolaketa eta haren funtzionamendua arautzen dituena.*

*2. artikulua eskola-garraioaren onuradun diren ikasleak jasotzen ditu, eta 1. puntuko a) apartatuan zera zehazten du: “Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko, Lanbide Heziketa Bereziko, oinarrizko mailako heziketa zikloetako, Batxilergoko eta erdi mailako heziketa zikloetako ikasketak egitea, foru agindu honetan zehazten diren baldintzetan.*

*Eta b) apartatuan: “Nafarroako Gobernuak ezarritako eskola zonifikazioaren arabera dagoen ikastetxe publikoan eskolatuta egotea (80/2019 Foru Dekretua, uztailaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko Ikastetxe Publikoen Sarea berrantolatzen duena)”.*

*Araudi horren 3. artikuluko 2. puntuan zera jasotzen da: “Era berean, eskola-garraioaren onuradun izanen dira hezkuntza laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleak, baldin eta 2.1.a) artikuluan zehaztutako ikasketak egiten ari badira eta Hezkuntza Departamentuak funts publikoekin sostengatutako unitate espezifikotara edo hezkuntza bereziko ikastetxeetara bideratzen baditu, bai eta, mugitzeko desgaitasuna, desgaitasun psikikoa edo zentzumen desgaitasuna dela eta, eskualdeko hiri garraio publikoa erabili ezin duten ikasleak ere, Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuak aldeko txostena eman ondoren”.*

*Inklusio Zerbitzuak ez du hizpide dugun kasua bideratu, familiak bere eskubidea baliatu baitu semea eskolatzeko tokia erabakitzeko. Ez dago ikaslearen beharren arreta bereizten duen arrazoi pedagogikorik; izan ere, erreferentziako ikastetxe publikoak egitura egokia du, eta, beraz, haren beharrei eraginkortasunez erantzun diezaike.*

*Familiek aurre egin behar dieten ondorio ekonomikoari aurre egiteko, urtero egiten dira beken eta dirulaguntzen deialdiak, garraiorako, egoitzako jantokirako eta/edo ikasteko zailtasunak dituzten ikaslearen beharrei erantzutetik eratorritako beste gastu batzuk ordaintzeko eska daitezkeenak.*

*Azaldutako guztiagatik, ez dagokio garraio-zerbitzua.*

*Hori guztia jakinarazten dizut behar diren ondorioak sor ditzan.*

Curriculum Bereziko Unitatean matrikulatutako ikasleek honako ezaugarri hauek izan behar dituzte: autonomoa izatea, eta desgaitasun kognitibo arina edo moderatua izatea, gutxienez lehen hezkuntzako bigarren zikloko curriculum-mailarekin.

Ez da Curriculum Bereziko Unitateko ikaslerik bideratzen, egitura hori bigarren hezkuntzako

ikastetxe gehienetan baitago, publikoetan zein itunduetan.

Araudian jasotako artikulua argia da; izan ere, dagokion zerbitzuak bideratu behar ditu ikasleak, hau da, arrazoi pedagogikoren bat egon behar da ikaslea bere egoitzatik urrun dagoen ikastetxe batean matrikulatzeko.

Azaldutako guztiagatik, ez dagokio eskatutako garraio-zerbitzua.

Iruñean, 2024ko urriaren 2an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

## **11-24/PES-00368. Galdera, Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egoteagatik larrialdi-egoeratan gerta daitezkeen kalteei buruzkoa**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egoteagatik larrialdi-egoeratan gerta daitezkeen kalteei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 13ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-24/PES-00368 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau jakiteko: "Tuterako Reina Sofia ospitaleko zenbait guardiatan erradiologoaren falta dagoela-eta, zer larrialdi-egoeratan gerta daiteke pazientearentzako kaltea ekografia baten ordean ordenagailu bidezko tomografia axial bat egiteagatik edo hori egiteko Iruñera joan beharrak dakarren atzerapenagatik?". Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak ematen duen informazioa:

Patologia emergenteak eta urgenteak artatzen dituzten profesionalak kasuko miaketak eskatzen

dituzte gaitz hori diagnostikatzeko eta tratatzeko, egoera klinikoaren arabera eta miaketa horiek egiteko aukera badago, une oro bilatuta errendimendurik onena eta pazientearentzako onurarik handiena.

Patologia emergenterako arretan (arreta berehalakoa eskatzen baitu denbora epe laburrean bizi arriskua dakarrelako) oro har egiten den miaketa ez da ekografia arautu bat, baizik eta paziente kritikoaren ohean bertan egiten den ultrasoinu azkarreko ebaluazioa nahiz fast ekografia bat, zirkulazioaren alterazioa diagnostikatzeko edota likido askea dagoen identifikatzeko, eta Larrialdieta-ko medikuek egiten dute.

Bestalde, patologia urgenterako arretan (arreta eman behar da epe laburrean, baina ez dago bizi arrisku berehalakorik) ekografia egiteko epeak ez dira nabarmenki desberdinak proba hori Tuterako Reina Sofia Ospitalean egin edo pazienteak Nafarroako Ospitale Unibertsitariora eramanez.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 30ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-24/PES-00369. Galdera, Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egotearen ondorioei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egotearen ondorioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 13ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako honi buruz: "Tuterako Reina Sofia ospitalean erradiologorik guar-

dian ez dagoenean, zer egiten da ekografia bat behar duten hurrekin?" (11-24/PES-00369). Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Anamnesiaren, miaketa fisikoaren eta analitiken emaitzen ondoren ekografia bat behar duten hurrei arreta ematen dieten profesionalak pazientea Nafarroako Ospitale Unibertsitariora deribatzen dute, edota hitzordua ematen diote hurrengo egunean ekografia bat egiteko kontuan hartuta diagnostikoa berehala edo geroago izatea komeni den.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## 11-24/PES-00370. Galdera, Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egoteagatik ZIUko pazienteei begira gerta daitezkeen kalteei buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Reina Sofia ospitalean guardiako erradiologorik ez egoteagatik ZIUko pazienteei begira gerta daitezkeen kalteei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 13ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko irailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako honi buruz: "Tuterako Reina Sofia ospitalean erradiologorik guardian ez

dagoenean, zer egiten da ekografia bat behar duten eta Iruñera eramateko moduan ez dauden ZIUko paziente ez-egonkorrekin?" (11-24/PES-00370). Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Paziente kritikoekin irudi proba egiteko jarraibiderik ohikoena OT bat egitea da. Ezegonkortasun hemodinamikoaren kasuan kontraindikaturatuta dago pazientea mugiaraztea, zentroan bertan OT bat egiteko bada ere, eta kasu horietan ekoskopia bidezko balorazio ekografikoa Reina Sofia Ospitaleko ZIUko profesionalak egiten dute.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko irailaren 23an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos



## 11-24/PES-00371. Galdera, kontratatutako bide, ubide eta portuetako ingeniari kopuruari buruzkoa

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak kontratatutako bide, ubide eta portuetako ingeniari kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko irailaren 13ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

#### **Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, 11-24/PES-00371 galdera egin du idatziz erantzun dakion. Nafarroako Gobernuko Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak jakinarazi du Egiturako, Plantillako eta Langileen Aldi Baterako Kontratazio-rako Zerbitzuak honako hau adierazi duela:

1. Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren abenduaren 27ko 3335/2022 Ebazpenaren bidez onetsi zen izangaien zerrendako bide, ubide eta portuetako zenbat ingeniari kontratatu dira Lurralde Kohesiorako Departamentuko plantillan lan egiteko?

Pertsona bat kontratatu da aipatutako zerrendan zeuden lau izangaien artean.

2. Zerrenda horretako zenbat izangai daude egun departamentuan lanean?

Gaur egun izangai batek dihardu Lurralde Kohesiorako Departamentuan lanean.

3. Zergatik ez dira lan egiten hasi Lurralde Kohesiorako Departamentuan?

Lurralde Kohesiorako Departamentuan ez dagoelako estali gabeko plaza hutsik.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 1ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.<sup>a</sup> Amparo López Antelo

#### **Lurralde Kohesiorako kontseilariaren erantzuna**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, 11-24/PES-00371 galdera egin du, Kontratutako bide, ubide eta portuetako ingeniari kopuruari buruzkoa, idatziz erantzun dakion. Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak jakinarazi du Egiturako, Plantillako eta Langileen Aldi Baterako Kontratazio-rako Zerbitzuak honako hau adierazi duela:

1. Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren abenduaren 27ko 3335/2022 Ebazpenaren bidez onetsi zen izangaien zerrendako bide, ubide eta portuetako zenbat ingeniari kontratatu dira Lurralde Kohesiorako Departamentuko plantillan lan egiteko?

Pertsona bat kontratatu da aipatutako zerrendan zeuden lau izangaien artean.

2. Zerrenda horretako zenbat izangai daude egun departamentuan lanean?

Gaur egun izangai batek dihardu Lurralde Kohesiorako Departamentuan lanean.

3. Zergatik ez dira lan egiten hasi Lurralde Kohesiorako Departamentuan?

Lurralde Kohesiorako Departamentuan ez dagoelako estali gabeko plaza hutsik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko urriaren 1ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

